

13. artikulua.– Curriculuma.
14. artikulua.– Lehen Hezkuntzako jakintza-arloak.
15. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak.
16. artikulua.– Ikasgaiak jakintza-arloetan txertatzea.
17. artikulua.– Hezkidetzeta-helburuak arloetan eta ikasgaietan txertatzea.
18. artikulua.– Ordutegia.
19. artikulua.– Eskola-egutegia
20. artikulua.– Talde eta eskolatzeta-berme bakoitzeko ikasleen eta irakasleen ratioa.

### III. KAPITULUA

#### CURRICULUMAREN ANTOLAMENDUA

##### 13. artikulua.– Curriculuma.

1.– Dekretu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuko elementuak arautzea da.

2.– Honako elementu hauek osatzen dute curriculuma:

a) Arlo edo ikasgai bakoitzari dagozkion edukiak modu integratuan aplikatzeko oinarrizko konpetentziak edo gaitasunak, pertsona guztiak beren garapen pertsonala lortzeko behar dituzten jarduerak egokiro egitea lortzeko eta arazo konplexuak eraginkortasunez ebazteko, bai eta herri-tartasun aktiboa, inklusio soziala eta enplegua sustatzeko ere.

b) Irakaskuntza bakoitzaren helburuak, hau da, ikasleek Oinarrizko Hezkuntzako irteera-profilaz jabetzeko eskuratu behar dituzten konpetentziak.

c) Gaikako edukiak, Oinarrizko Hezkuntzako helburuak lortzeko eta oinarrizko konpetentziez jabetzeko adierazpenezko ezaupideak, prozedurak eta jarrerak biltzen dituztenak.

d) Metodologia didaktikoa, hau da, irakasleen jardunbideak, irakasle-lanaren antolakuntza eta orientabide metodologikoak.

e) Ebaluazio-irizpideak eta lorpen-mailaren adierazleak, hau da, arlo edo ikasgai bakoitzerako finkatutako konpetentziak eta helburuak zenbateraino eskuratzen diren neurtzeko estandarrak.

3.– Arlo edo ikasgai bakoitzeko oinarrizko konpetentzia bakoitza eta bere osagaiak, helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak agertzen dira oinarrizko arategian, eta II. eranskinak eta ikastetxe bakoitzaren Curriculum Proiektuak horiek osatzen ditu, Dekretu honen 23. artikulua betez.

#### 14. artikulua.– Lehen Hezkuntzako jakintza-arloak.

1.– Lehen Hezkuntza jakintza-arlotan dago egituratuta, etapa bakoitzaren izaera globala kalte gabe, haurren esperientziak eta ikaskuntzak integratu behar baitira. Etapa honetan, ikasleen esperientziak eta ikaskuntzak integratzeko ahalegina egingo da, eta ikasleen lan-eritmoetara egokituko da, haien gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko.

2.– Honako hauek dira diziplinen barruko oinarrizko konpetentzien balibideak irakastearekin eta ikastearekin lotutako arloak:

a) Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, eta Atzerriko Lehen Hizkuntza, hizkuntz eta literatur komunikaziorako konpetentziarekin.

b) Matematika (matematikarako konpetentzia).

c) Natur Zientziak (zientziarako eta teknologiarako konpetentzia).

d) Gizarte Zientziak, Balio Sozialak eta Zibikoak, eta Erljioa (gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia).

e) Arte Hezkuntza (arterako konpetentzia).

f) Gorputz Hezkuntza (konpetentzia motorra).

Arlo bakoitzak oinarrizko zehar-konpetentzia guztiak garatzeko balio du eta, gehiago edo gutxiago, diziplinen barruko beste oinarrizko konpetentziak garatzeko ere bai, bizitza errealeko problemak konpontzeak hainbat arlotako balibideak modu osagarrian erabiltzea eskatzen baitu.

3.– Ikasleek ondorengo arloak ikasi behar dituzte ikasturte bakoitzean:

a) Natur Zientziak.

b) Gizarte Zientziak.

c) Euskara eta Literatura.

d) Gaztelania eta Literatura.

e) Matematika.

f) Atzerriko Lehen Hizkuntza.

g) Arte Hezkuntza.

h) Gorputz Hezkuntza.

i) Erljioa edo Balio Sozial eta Zibikoak, gurasoek edo legezko tutoreek aukeratutakoa. Etaparen hasieran egingo da aukeraketa, eta etapa osorako izango da. Aldatu nahi izanez gero, ikasturtearen hasieran egin behar da eskaera.

4.– Euskara eta Literatura, eta Gaztelania eta Literatura arloek tratamendu bera jasoko dute.

5.– Horretaz gainera, ikasleek arlo bat edo batzuk gehiago ikasi ahal dituzte –sakontzekoak, indartzekoak edo bestelakoak–, hezkuntza-eskumenak dituen sailak jarritako baldintzen arabera.

6.– Arau orokor gisa, Lehen Hezkuntzako arlo guztietan eman dezakeen irakasle bakar batek irakatsiko ditu arlo guztiak, eta taldeko tutorea izango da, ikastetxearen antolaketak horretarako aukera ematen badu. Musika, gorputz hezkuntza eta atzerriko hizkuntza irakasteko, espezializazioa edo kualifikazioa beharko da. Balio Sozialen eta Zibilen arloa ikastetxeko edozein irakaslek eman ahal izango du –zuzendaritzak izendatuta–, baina aukeran tutoreak berak, zeinak arlo horretako elementuak beste jakintza-arlo batzuetan ere integratu ahal izango dituen.

7.– Ikas-arloen trataeran globalizazioa eta diziplinartekotasuna sustatu nahian, ikastetxeek jakintza-arloka sailkatu ahal dituzte etapa honetako ikasgaiak.

#### 15. artikulua.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaiak.

1.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasgaitan banatzen da eta lau maila ditu. Ikasgaika antolatzeak ez du kaltetzen etaparen diziplina-artekotasuna, ez eta oinarrizko kompetentziak garatzea ere.

2.– Honako hauek dira diziplinen barruko oinarrizko kompetentzien baliabideak irakastearekin eta ikastearekin zuzen-zuzenean lotutako ikasgaiak:

a) Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Atzerriko Lehen Hizkuntza, Atzerriko Bigarren Hizkuntza eta Latina (hizkuntz eta literatur komunikaziorako kompetentzia).

b) Matematika (matematikarako kompetentzia).

c) Biologia eta Geologia, Fisika eta Kimika, Kultura Zientifikoa, Jarduera Profesionalari aplikatutako Zientziak (zientziarako kompetentzia).

d) Teknologia eta Informazio eta Komunikazio Teknologiak (teknologiarako kompetentzia).

e) Geografia eta Historia, Balio Etikoak, Erljioa, Ekonomia, Ekintzailtza- eta enpresa-jardueren hastapena, Kultura Klasikoa eta Filosofia (gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia).

f) Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza, Musika eta Arte Eszenikoak eta Dantza (arterako kompetentzia).

g) Gorputz Hezkuntza (kompetentzia motorra).

Ikasgai bakoitzak oinarrizko zehar-kompetentzia guztiak garatzeko balio du eta, gehiago edo gutxiago, diziplinen barruko beste oinarrizko kompetentziak garatzeko ere bai, bizitza errealeko problemak konpontzeak hainbat arlotako baliabideak modu osagarrian erabiltzea eskatzen baitu.

3.– Ikasleek Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura ikasgaiak ikasi behar dituzte, derrigorrezkoak baitira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan; arlo biek tratamendu bera jasoko dute.

4.– Lehenengo eta bigarren mailan, Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura ikasgaiez gain, honako ikasgai hauek ere egin beharko dira:

- Geografia eta Historia.
- Matematika.
- Atzerriko lehen hizkuntza.
- Biologia eta Geologia lehen mailan.
- Fisika eta Kimika bigarren mailan.
- Gorputz Hezkuntza.
- Erlijioa edo Balio etikoak, gurasoen edo legezko tutoreen edo, hala dagokionean, ikaslearen aukeran.
- Teknologia.

5.– Hirugarren mailan, Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura ikasgaiez gain, honako ikasgai hauek ere egin beharko dituzte ikasle guztiek:

- Geografia eta Historia.
- Irakaskuntza akademikoetara bideratutako matematika edo Irakaskuntza aplikatuetara bideratutako matematika.
- Atzerriko lehen hizkuntza.
- Biologia eta Geologia.
- Fisika eta Kimika.
- Gorputz Hezkuntza.
- Erlijioa edo Balio etikoak, gurasoen edo legezko tutoreen edo, hala dagokionean, ikaslearen aukeran.
- Teknologia.

6.– Ikasle guztiek ikasi beharko dituzte Plastikazko, Ikusizko eta Ikus-Entzunezko Hezkuntza eta/edo Musika lehenengo, bigarren eta hirugarren mailatan. Gainera, ikastetxeek Bigarren Atzerriko Hizkuntza ere eskaini ahalko dute maila horietan.

7.– Laugarren mailan, Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura ikasgaiez gain, honako ikasgai hauek ere egin beharko dituzte ikasle guztiek:

- Geografia eta Historia.
- Irakaskuntza akademikoetara bideratutako matematika, edo Irakaskuntza aplikatuetara bideratutako matematika.
- Atzerriko lehen hizkuntza.
- Gorputz Hezkuntza.
- Erlijioa edo Balio etikoak, gurasoen edo legezko tutoreen edo, hala dagokionean, ikaslearen aukeran.

8.– Laugarren mailan, gainera, ikasleek hauetako ikasgaietatik bi ikasiko dituzte gutxienez, aukeratzen duten multzoaren arabera:

A multzoa

- Biologia eta Geologia.
- Ekonomia.
- Fisika eta Kimika.
- Latina.

B multzoa

- Jarduera profesionalari aplikatutako zientziak.
- Ekintzailletza- eta enpresa-jardueren hastapena.
- Teknologia.

9.– Laugarren mailan, gainera, ikasleek hauetako ikasgaietako bi aukeratuko dituzte gutxienez (A eta/edo B multzoetatik hartuak):

A multzoa

- Arte Eszenikoak eta Dantza.
- Kultura zientifikoa.
- Kultura klasikoa.
- Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza.
- Filosofia.
- Musika.
- Atzerriko bigarren hizkuntza.
- Informazio eta Komunikazio Teknologiak.

B multzoa. Eman gabeko ikasgai bat, honako hauen artetik:

- Biologia eta Geologia.
- Ekonomia.
- Fisika eta Kimika.
- Latina.
- Jarduera profesionalari aplikatutako zientziak.
- Ekintzailletza- eta enpresa-jardueren hastapena.
- Teknologia.

10.– Ikastetxeek curriculum-ibilbideak osa ditzakete, beren curriculum-proiektuaren arabera eta beren hezkuntza-eskaintzaren arabera, ikasleei ikasgaiak aukeratzeko orientabidea emateko.

Nahi duten ikasle guztiei derrigorrezko irakaskuntzaren ondokoetan sartzen errazteko, ikastetxeek behar diren antolakuntza- eta curriculum-neurriak hartuko dituzte artikuluko honen 8. atalaren A eta B multzoei dagozkien ikasgaietarako ibilbideak sortzen uzteko.

Ikastetxeek diziplinazko oinarrizko konpetentzia Sozial eta Zibikoa eta Zientifikoa eta Teknologikoaekin erlacionatutako bi ikasgai sartu ahaliko dituzte, betiere sartutako ikasgai bakoitzerako I. eranskinean ezarritako gutxieneko ordutegia errespetatzen badute.

Irakasle bakar batek emango ditu ikasgai integratuak, eta kalifikazio bereiztuak dituzten bi ikasgaitzat joko dira.

11.– Aurreko ataletan aipatutako ikasgaietz gain, bere autonomiaren barruan, ikastetxeek beste ikasgaien bat eskaini ahal dute, hezkuntza-eskumenak dituen sailak ezarritako baldintzetan.

#### 16. artikulua.– Ikasgaiak jakintza-arloetan txertatzea.

Ikastetxeek ezagutza-arloetan sartu ahaliko dituzte curriculum-gaiak, betiere errespetatuz elkartutako ikasgai guztien edukiak, ebaluazio-irizpideak eta lorpen-adierazleak edo estandar ebaluagarriak, bai eta horiei guztiei esleitutako ordutegia ere. Elkartze horrek irakaskuntzen antolaketan eragingo du, baina ez ebaluatzeko eta mailaz igotzeko orduan.

#### 17. artikulua.– Hezkidetzak helburuak arloetan eta ikasgaietan txertatzea.

1.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak hezkidetzak proiektuak egitea eta hezkuntza-proiektu eta curriculumetan hezkidetzako helburu hauek sar daitezzen sustatuko du:

a) Emakumeei eta gizonei esleitutako portaera-eredu soziokulturaletan oinarrituta eraiki diren sexuaren araberako aurreiritziak, estereotipoak eta rolak ezabatzea, sexu bateko zein besteko ikasleei beren buruak erabat garatzeko aukerak eskaintze aldera.

b) Emakumeen jakintza eta gizadiaren garapenari egin dioten ekarpen soziala eta historikoa txertatzea, irakatsitako edukiak berrikusiz eta zuzenduz, hala dagokionean.

c) Beharrezko jakintzak gehitzea, etxeko lanak eta pertsonen zaintza dela eta, neskek nahiz mutilak gaur egun dauzkaten eta etorkizunean izan ditzaketen beharizanen eta erantzukizunen ardura har dezaten.

d) Ikasleak trebatzea, aukera akademikoak egiten dituztenean ez ditzaten aintzat hartu gene-roan oinarritutako baldintzapenak.

e) Emakumeenganako indarkeriaren prebentzioa; horretarako, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak ikasiko dira, bai eta aniztasunean eta emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasunean oinarritutako bizikidetzak-ereduak ere.

2.– Era berean, ikastetxeek Oinarrizko Hezkuntzaren maila guztietako tutoretzan sartuko dute indarkeriazko jokaeren prebentzioa eta eguneroko bizitzari buruzko eduki zehatzak, eta bertan txertatuko dira gai hauek: etxea, pertsonen zainketa, harreman pertsonalen funtzionamendua, gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak, eta sexuen berdintasuna eta aniztasuna errespetatzen duten bizikidetzak-ereduak.

#### 18. artikulua.– Ordutegia (ikus I eranskina).

1.– Lehen Hezkuntzako maila bakoitzak gutxienez 875 ordu ditu urtean. Ikasleen eskola-jarduerak astelehenetik ostiralera izango dira, goiz eta arratsalde, astean gutxienez 25 ordu maila bakoitzean, eta horren barruan joango da 30 minutuko jolas-ordua egunero. Arlo bakoitzari

emandako ordutegia bertan lan egiteko denbora izango da, alde batera utzi gabe etaparen izaera orokorra eta integratzailea.

2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako maila bakoitzak gutxienez 1.050 ordu ditu urtean. Oro har, eskola-jarduerak astelehenetik ostiralera izango dira, goiz eta arratsalde, astean gutxienez 30 ordu maila bakoitzean.

3.– Ikastetxe bakoitzak arloen eta irakasgaien artean banatuko ditu ordu horiek, betiere I. eranskinean adierazitako gutxienezko ordutegia betez. Aukera hori gauzatzen ez duten ikastetxeek eranskin horretan adierazitako erreferentziako ordutegia beteko dute.

#### 19. artikulua.– Eskola-egutegia.

1.– Eskola-egutegia ikastetxe bakoitzak ezarriko du bere hezkuntza-proiektuaren arabera, eta 175 eskola-egun izango ditu gutxienez. Ikastetxe bakoitzak ikasturte bakoitzeko egutegia egiteko arautegia erabakiko du hezkuntza-eskumenak dituen sailak.

2.– Ikasturtea inolaz ere ez da hasiko irailaren 1a baino lehen, eta eskolak inolaz ere ez dira amaituko ekainaren 30aren ondoren.

#### 20. artikulua.– Talde eta eskolatze-berme bakoitzeko ikasleen eta irakasleen ratioa.

1.– Ikastetxe publikoei buruzko xedapenetan agertzen da ikasgela arrunteko talde bakoitzean zenbat ikasle egon daitezkeen gehienez. Itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasle-kopuruak egokitu egin behar du hezkuntza-itunei buruzko arautegira.

2.– Talde batzuetan, kopuru hori gainditu egin daiteke ikasturtea berandu hasi dutenak edo mailaz igo ez direnak hartzeko, baldin eta guztizko kopurua ez bada % 10 handiagoa aipatutako ratioa baino.

3.– Irakasle/talde ratioa handitu egin daiteke ikasleen ezaugarri sozial, ekonomiko, linguistiko eta kulturalen arabera, eta ikastetxean baimendutako programen eta proiektuen arabera.

4.– Ikastetxe publikoek eta itunpeko pribatuek derrigorrezko irakaskuntza amaitu arte eskolatu behar dituzte ikasle guztiak, non eta ez den ikastetxea aldatzen familiaren borondatez edo ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko arautegian aurreikusitako kasuren batengatik.